

91. NAO - 2012ko maiatzaren 15a

254. ALDIZKARIA - 2025eko abenduaren 23a (tarifaren aldaketa)

4. ORDENANTZA - ORDENANTZA FISKALA, AGIRIAK LUZATU ETA TRAMITATZEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

Oinarria.

1. artikulua. Ordainarazpen hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen Lehenengo Tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoaren arabera eta lege beraren 12. artikuluan jasotzen den baimenari jarraituz.

Zergapeko egintza.

2. artikulua. Alderdi batek eskaturik, udal administrazioak edo udal agintariak beren eskumeneko agiriak emateagatik sortzen den udal jarduerak eratzen du zergapeko egintza.

Ordaindu beharra.

3. artikulua. Ordaindu beharra sortzen da norberaren intereserako, udal administrazioak edo udal agintariak euren eskumenekoak diren edo izan behar duten edozein agiri luzatzea eskatze hutsarekin.

Subjektu pasiboa.

4. artikulua. Udal administrazioak edo udal agintariak luzatzen dituzten edo beren eskumenekoak dituzten agiriak eskatu, sorrarazi edo haien onura jasotzen duten pertsona natural nahiz juridikoak dira subjektu pasiboak.

Tarifak.

5. artikulua. Ordenantza honetako tarifak eranskinean agertzen dira.

Kudeaketa eta diru-bilketa arauak.

6. artikulua. 1. Tasa sortuzat hartuko da agiria Udalaren Erregistro Orokorrean aurkezten denean eta udal bulegoetan ordenantzapeko eskabiderik ez agiririk ez da hartuko, ezta tramitatuko ere, aldez aurretik ez bada ordainketa egin.

2. Udal zigituaren itzulketa behar duen agiririk ez da emanen, agiria ematen duen funtzionarioak zeregin hori bete ez badu.

Aurrekariak bilatzeko eskaera orok tasa sorraraziko du, emaitza negatiboa bada ere.

7. artikulua. Udal administrazioaren dokumentu eta jakinarazpenen Sarrera eta Irteera Erregistro Orokorrean ardua duten funtzionarioek emanen dituzten udal zigitudun agiri guztiak zenbatuko dituzte eta Udal Diruzaintzan egunero diru-sarrerak, dagozkien likidazioekin eginen dituzte.

Arau-hausteak eta zehapenak.

8. artikulua. Udal administrazioaren dokumentu eta jakinarazpenen Sarrera eta Irteera Erregistro Orokorraren ardura duten funtzionarioak eta Udal Diruzaintzaren langile arduradunak izanen dira iruzurraren erantzule. Iruzurra indarra duten xedapenetan aurreikusitako eran zigortuko da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.-Ordenantza honetan aurreikusi ez den orotan, ordenantza fiskal orokorrean eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean xedatutakoa aplikatuko da.

Bigarrena.-Ordenantza honek indarra hartuko du eta ondorio juridiko osoak sortuko ditu, testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoan.

TARIFAK

ORDENANTZA FISKALA, ARAUTZEN DITUENA AGIRIAK EMAN ETA TRAMITATZEKO TASAK	2026KO TARIFAK (eurotan)
I. epigrafea.-Ziurtagiriak	
a) Erroldatzeari, ondasunei, bizikidetzari eta abarri buruzko ziurtagiriak	2,00
b) Ekonomia-jardueren gaineko zergari buruzko ziurtagiriak	2,70
c) Udalaren agiritegietan kontsulta egitea beharrezko duten ziurtagiriak	7,70
II. epigrafea.-Agirien fotokopiak, partikularrek eskatuak (paperezko kopia edo kopia digitala)	
a) DinA-4 tamainako kopia bakoitzeko	0,20
b) DinA-3 tamainako kopia bakoitzeko	0,50

III. epigrafea.-Planoen kopiak

a) DinA-3 baino tamaina handiagoko kopiak	9,20
b) DinA-3 tamainako kopiak	0,50
c) Planoak eskaneatzea DinA-3 baino tamaina handiagoan (1)	3,20
d) Planoak eskaneatzea DinA-3 tamainan (1)	0,30

Soilik lehenago adierazitako operazioak egingen dira. Ez da planorik handituko edo txikituko

(1) Adierazitako zenbatekoan sartuta dago eskaneatutako dokumentazioa posta elektronikoz igortzea nahiz disko gogor eramangarri, memoria lapitz edo gisako batean grabatzea

Dokumentazio eskaneatua CD batean grabatzeko, beste 5 euro ordaindu beharko dira

IV. epigrafea.-Txartelak ematea

a) Arma txartel edo haren kopia bakoitzeko	18,40
b) Aldi baterako aparkatze mugatuko (AAME) txartel edo haren kopia bakoitzeko	11,00

V. epigrafea.-Agirien konpultsa

a) Udalak emandako dokumentuak soilik konpultsatuko dira baldin eta beste administrazio publiko batera bidali behar badira eta udaletxean aurkezten badira bidaltzeko	0,50
b) Bide publikoko istripu baten txostenaren kopia konpultsatua	64,50
c) Poliziak gertakariari buruz egindako txostenaren kopia konpultsatua	7,20

VI. epigrafea.-Langileak hartzeko deialdien izapidetzea

a) Erdi edo goi mailako titulazioa eskatzen duten lanpostuetarako	22,00
b) Gainerako lanpostuetarako	10,80

Honako hauek ez dute tasarik ordaindu beharko:

-Deialdi hau argitaratu baino hilabete bat lehenagotik gutxienez, langabe gisa inskribaturik dauden pertsonak.

Aurreko paragrafoan ezartzen den salbuespena frogatzeko, kasuan kasuko enplegu bulegoak emandako ziurtagiri bat aurkeztu beharko da, non agertuko baita zein egunetan inskribatu zen langabe gisa.

VII. epigrafea.-Obra lizentzien, irekitzeko lizentzien edo hirigintzako beste edozein ebazpenen kopiak ematea	30,70
--	-------

VIII. epigrafea.-Aurrekontuak eta ordenantza fiskalak

Ale bakoitza	14,30
--------------	-------

IX. epigrafea.-Hirigintzako kontsultei buruzko txosten teknikoak ematea

Txosten bakoitza	64,00
------------------	-------